

Garbittasun itzela...

Eitten jakon baserrixai Andramarixetarako. Konbidau egunek izeten zien bai, eta etxe bueltie libixtie baiño garbixaeu laga bihar izaten zan: sukaldie zuritu, geletako behiek arena, koltxoiek altxau eta bittartietan batutako amaraun eta zarraparrak erretirau, koltxillak astindu, ohe kamadarrai lustrie emon, izera eta zamauek garbittu, erropa zurixe tolostu eta itxuran gorde komodetan... egunetarako biherlekua egoten zan. Urte birik bat gero koltxoiek jo bihar izeten zien, ardilanazkuek izen eta pisuan pisuaz kopetau eta gogortu eitten zien eta. Etara koltxomena barrutik, ataixen zabal-zabalik ipiñi eta makilliaz blastio ederrak emon bihar izaten jakuen harrotu eta gozotu deixien barruko lanei. Ha azala garbitxu eta gaberako siku eta lo eitteko prest egon biher izeten zanez, egun eguzkitsuetan eiñbiharreko zeregiñe zan. Ermuen koltxoiek jotetik perro batzuk etaten zitxuezen andra banaka batzuk euazen eta frontoie ebalten eben euren biherrerako.

Nekosue eta izerditsue bazan koltxoion harutz-honutze, ez zan makala erropa zurixan libibiana. Hillebete be iguel egoten zien aldatu barik ohiek eta ehunezko izera aztunekin batera, hillien ziher pillautako barruko erropian jabonadurie be eitten zan.

Erropak zuritzen

Bezperan beratzen ipintzen zien jaboi Chimbua eta lauskitu batzuk emoten jakuezen zikiñik haundiñe kentzeko. Erropie egurrezko barrika baten sartzen zan eta trapu zuri bateaz tapau ostien, usain gozue emon deixon gaiñetik ereinetza zabaltzen jakon, atzera be beste trapu zuri bat az tapatzeko. Sutako hautse zabaltzen zan honen danon gaiñien eta prest- prest euanian dana, ur irekiñe botatzen jakon. Hauts honek erropak zuritzeko orduen lejian besteko indderra eukene, baiña ehunezko gauzendako lejia baiño zatixa egokixaeu zan, ez eta erroparik alperrik galtzen. Barrikie urandako urteerie ekan harri txapal baten gaiñien ipintzen zanez, jabonadurako ur zikin danak desagae sofistika horretatik martxatzen eben. Egun oso bat euki biher izeten zien garbittutakuok barrikan. Hurrengo eiñbiharrekue: errekarera eruen zinkeko balda baten, uretan eraiñ eta libiba-harrixan kontra jo.



Umiek be tatarrasten zitxuezen errekaraino, izerak mutur banatik eldu, bigurtu eta urik haundiñe kentzen laguntzeko. Argi- indarrak bako sekadorie!

Laster etozen jaixok. Eta bazkalosteko erromerixan ha aspaldiko koplíe kantaeko eban panderojolie:

“Oraingo neskatille,
zer dozu merezi? (2).

Errekan beratuta,
lexiban egosi,
ai, ai, ai,
lexiban egosi.”

Seguru egon erropian besteko tratu txarra ez ebela mereziko orduko neskatillak!

Estibalitz González

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- Tarta bereziak

• *Astelehenetik ostiralera 9etan
zabaltzen dugu*



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN


Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



- LENGOAIA MUSIKALA
- PIANO
- AKORDEOIA
- FLAUTA
- KLARINETEA
- SAXOFOIA
- TRONPETA
- TRIKITIXA
- KOROA
- TXISTUA

JUAN LUIS fruitategia

Mikel Zarate 4
635 73 95 05
Mallabia



eskaintza berezietaz GOZATU